

OROKORRA

Gure produktua Reset Room bat da, ikastetxeetan sortutako gela berezi bat, ikasleek lasaitzeko, arnasa hartzeko eta burua pixka bat “reset” egiteko. Gaur egun ikasle askok estresa, antsietatea eta kontzentrazio falta dituzte, azterketengatik, lanengatik edo presioagatik, eta horrek errendimenduan eta ongizatean eragiten du.

Reset Room ez da erlaxatzeko gela arrunt bat. Guk bi gauza elkartzen ditugu, gela fisiko lasai bat eta Pinganillo Smart izeneko gailu bat. Gela barruan zarata gutxi dago, argi epela, usain atseginak eta erlaxatzeko materialak daude, ikaslea lasai sentitzeko. Helburua da ikaslea une batez gelatik ateratzea eta lasaituta berriro klasera itzultzea.

Pinganillo Smart entzungailu moduko bat da. Horren bidez, ikasleek arnasketa ariketak, erlaxatzeko audioak edo kontzentrazioa berreskuratzeko mezuak entzun ditzakete. Horrela, burua lasaitzen laguntzen du eta estresa gutxitzen da.

Produktu honen abantaila da ikasleek hobeto sentitzen direla, lasaiago daudela eta kontzentrazio handiagoarekin bueltatzen direla klasera. Horrek giro hobea sortzen du ikastetxean, eta irakasleek ere nabaritzen dute ikasleak lasaiago daudela.

Gainera, ez da oso proiektu garestia, eta ikastetxeentzat inbertsio ona da, ikasleen ongizatea zaintzen duelako. Gure produktuari esker, ikastetxeek espazio moderno eta erabilgarria izango dute, ikasleen estresa gutxitzeko eta ikasteko gogoia handitzeko.